



LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

NATURA TURISMORI ETA HEZKUNTZA AISIALDIARI BURUZKO
ZERBITZU BERRIA KARPINEN

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2019

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailtzarako laguntzak.
- ☐ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontratazioarako laguntzak.
- ☒ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Karpin Fauna parkean zerbitzu berria abian jartzea, Mankomunitateak ingurumenaren eta iraunkortasunaren arloan garatzen duen hezkuntza-jarduera handitzeko Karpinera doazen bisitari guztientzat. Jarduketari esker, natura-baliabideak eta, hortaz, ingurumena errespetuz erabiltzeak naturari dakartzkion abantailak azpimarratuko dira.

5.- Inbertsio totala: 85.099,30 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 48.506,60 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

ENKARTERRIKO UDALEN MANKOMUNITATEA

- ☒ Publikoa
- ☐ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Enkarterriko Udalen Mankomunitatea eta Eusko Jaurlaritza.

9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:

Karpin Fauna, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Bizkaia,

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Karpin Faunan, narrastientzako eremua instalatzea naturari lotutako hezkuntza-aisialdi eta turismoko programa baten esparruan, agiri honetan deskribatu den bezala, produktu berritzaile eta bereizgarria da, hainbat arrazoiengatik:

Enkarterriko aisialdi- eta turismo-eskaintza handitzen du, eguraldiak baldintzatzen ez duen jarduera-programa oso baten bidez. Adin-tarte anitzeko bisitarientzako eskaintza lantzen du (eskolako haurrak, familiak, bisitariak, oro har, fauna eta flora gustuko duten pertsonak...) eta benetan modu atsegin eta jolasgarrian lantzen du, natura, fauna eta floraren balioak sustatuz, hau da, biodibertsitateari buruzko hezkuntza-proposamena baliatzen du. Eskualde osoan eta Bizkaiko Lurralde Historiko osoan ez dago pareko proposamenik.

Zerbitzu berria garatuta jardueren eskaintza ez da urtaroekin lotuko eta, horrela, zentroa bizi-bizi egongo da urte osoan.

Beste alde batetik maskotak edukitzeko erantzukizunari buruzko ingurumen-hezkuntzako programa bat ere lantzen da, ikusgai dauden animalien banako istorioa oinarri hartuta. Garrantzi bereziko kasu batean (maskotenean) *storytelling* teknikak baliatzen dira, horrelako erabaki batek daukan garrantzia familiaren baitan lantzeko.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

- Bisitari gehiago erakarri dira Karpinera eta, beraz, eskualdera. Gainera, bisiten joan-etorria urtarokako antolaeratik askatu da.
- Epe ertainean, goi-denboraldietan (aste santua, uda) errefortzu gisa kontratatutako pertsonen lanaldia handitu da epe ertainean.
- Karpin ingurune naturalari buruzko heziketarekin eta horren kudeaketarekin (fauna eta flora) lotutako prestakuntza-zentroa da.
- Karpin Fauna naturari lotutako turismoaren eta aisialdiaren zentro eragile gisa sendotu behar da Enkarterriko eskualdean.
- Enkarterrin emandako egonaldiaren iraupena luzatzen lagundu du.